

| TITULARRAK | ADIERAZLEAK | Azken datua Δ | Urte artekoa (%) <small>*aurreko aldia</small> | Azken datuaren data |
|---|---|----------------------|---|---------------------|
| <ul style="list-style-type: none">Uztailean erregistratutako langabeen kopurua 20.755 pertsonara igo da, hau da, ekaineko datuaren aldean 312 langabe gehiago daude.Kontratazioak % 4,0 egin du gora urte batetik bestera. Lan-kontratu mugagabeak kontratu guztien % 26,5 izan dira.Bilbon ekainean afiliatutako biztanleak, guztira, 195.408 dira; hau da, ekainarekin alderatuta kopuruak $-$% 1,0 egin du behera. Zerbitzuetan 1.714 enplegu galdu dira ($-$% 1,0).Txikizkako merkataritzak bigarren hiruhilekoan % 3,5eko urte arteko igoera izan du salmentetan.Bilboko turismo-jarduerak gora egin du hoteletan, bidaiarien sarrerak eta ostatu-gauak urtetik urterako % 7,7ko eta % 5,5eko igoera izan zuten, hurrenez hurren. Apartamentu turistikoek % 43,4an gaintzen dituzte uztailearen 2024an erregistratutako ostatu-gauak eta % 72,4an sarrerak.Bilboko aireportuan 690.201 bidaiari erregistratu dira uztailean; hortaz, % 0,6ko gorakada egon da 2024ko hilabete berarekin alderatuta. Jarduera hasi zenetik hilabeteko daturik onena da.Bilboko Portuko salgaien garraioa uztailean $-$% 0,4 murriztu da. | <p>Lan-merkatua</p> <p>Afiliatutako biztanleria (kop) 195.408</p> <p>Erregistratuko langabeak (kop.) 20.755</p> <p>Erregistratutako kontratuak 13.198</p> <p>Merkataritza</p> <p>Txikizkako merkataritza: salmenta-indizea (2021. urtea=100eko oinarria) 113,1</p> <p>Turismoa</p> <p>Bidaiarien sarrerak (kop) 122.987</p> <p>Hoteletako gaualdiak (kop) 242.100</p> <p>Bidaiarien sarrerak (kop) 20.735</p> <p>Apartamentuetako gaualdiak (nº) 39.492</p> <p>Garraioa</p> <p>Bidaiarien aireko-garraioa (kop) 690.201</p> <p>Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan) 2,9</p> | | | |

DATU BAT

690.201

Aireportuko bidaiariak

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia-tasa

Uztailean 312 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hiletik hilera % 1,5 gehiago, eta 20.755 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa igo egin da gizonen eta emakumeen artean, % 0,9 eta % 0,2, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 229 emakume langabe eta 83 gizon langabe zeuden.

Soilik 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean egin du zertxobait behera langabezia-tasak (-% 0,3 eta 5 langabe gutxiago). 25 eta 44 urteko segmentuan igo da gehien ehunekotan, % 2,1 (+152), eta 45 urtetik eta gorakoan artean datu absolutuetan, 165 langabetu gehiago (% 1,4).

Sektoreka, Zerbitzuetan 348 langabe gehiago daude (% 2,4) eta Industrian 14 (% 1,1). Lehenengo sektoreak, Eraikuntzak eta lehenengo enplegua bilatzen ari den langabetuek langabezia murriztu dute (5, 6 eta 39 langabe gutxiago hurrenez hurren).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5) erregistratutako langabezia-tasa % 0,8 igo da aurreko hilaren aldean. Sevillak izan ezik (-% 0,3), taldeko hiri guztiek gora egin dute. Gorakadarik nabarmenena Zaragozan erregistratu da (% 2,7), eta txikiena Madrilen (% 0,4).

Euskal hiriburuen taldean (G-3), erregistratutako langabezia-tasa % 1,0 igo da. Igo egin da Donostian (% 2,3) eta Iruñean (% 1,9%) eta zertxobait jaitsi Gasteizen (-% 0,3).

EAE langabeziak gora egin du (% 1,5), eta baita Gipuzkoa eta Bizkaian ere: % 1,9 bi lurraldeetan. Arabak baino ez du lortu langabezia zertxobait jaitea, -% 0,2.

Afiliatuak

Uztailaren amaieran Bilboko enpresetan 195.408 afiliatu zeuden, hau da, ekainean baino 1.895 enplegu gutxiago (% 1,0).

Araubide Orokorak 1.734 enplegu galdu ditu aurreko hilabetearekin alderatuta. Behera egin dute ere Langile Autonomoen Araubide bereziak (118 afiliazio gutxiago) eta Etxeko langileak (56 gutxiago). Soilik araubide bereziek (Nekazaritza eta Itsasoa) egin dute gora (13).

Sektoreka, Zerbitzuek 1.714 afiliatu galdu dituzte, Industriak 95 enplegu eta Eraikuntzak 94 (-% 1,0, hiru kasuetan). Lehen sektoreak enplegua irabazi du, 8 afiliatu gehiago eta +% 3,3.

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

| | |
|----------------|------------------------|
| Uztaila | 20.755 pertsona |
| | % 1,5 ▲ |
| Emakumeak | % 2,0 ▲ |
| Gizonak | % 0,9 ▲ |

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

| | |
|--------------|----------------|
| Bilbo | % 1,5 ▲ |
| G-5 | % 0,8 ▲ |
| G-3 | % 1,0 ▲ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko Δ

| | |
|------------------------|-------------------------|
| Uztaila | 195.408 pertsona |
| | % 1,0 ▼ |
| Araubide orokorra | -% 1,0 ▼ |
| Autonomoak | -% 0,5 ▼ |
| Etxeko Sistema Berezia | -% 0,9 ▼ |
| Beste batzuk | % 1,8 ▲ |

Zerbitzuetan datu absolutuetan nabarmendu behar dira Hezkuntzak, Jarduera artistiko eta aisialdikoek eta Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak izandako beherakadak (961, 358 eta 213 afiliatu gutxiago, hurrenez hurren). Gorakada nabarmenenak Osasungintzan (278 enplegu) eta Gizarte-zerbitzuetan (126 enplegu) eman dira, hau da, % 1,8 eta % 1,2 egin dute gora hurrenez hurren.

Urte artean, ordea, enpleguak % 2,2ko gorakada izan du, hau da, 4.124 afiliatu gehiago.

Araubide Orokorrak gora egin du % 2,7 eta behera egin dute Etxeko langileek (-% 3,4), bereziek —Nekazariak eta Itsasoa— (-% 4,0) eta Autonomoek 0,0%.

Sektoreka, Zerbitzuetan 3.903 afiliatu gehiago daude (% 2,3), Industrian 124 gehiago (% 1,4), Eraikuntzan 85 gehiago (% 0,9) eta Lehen Sektorean 12 gehiago (% 5,0).

Zerbitzuetan nabarmentzekoak dira adar hauetan erregistratutako igoera absolutuak: Garraioa eta biltegiatzea, Hezkuntza, Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak, Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak eta Ostalaritza (735, 669, 461, 456 eta 446 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 0,8ko jaitsiera izan du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztiek behera egin dute. Bartzelona eta Zaragozak erregistratu dituzte beherakada nabarmenenak (-% 1,1 eta -% 0,8 kasu bakoitzean).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, -% 0,1 jaitsi da. Gasteizen -% 0,7 murriztu da. Soilik Donostiak eta Iruñeak handitu dute afiliazioa, % 0,3 eta % 0,2, ordena horretan.

EAEEn, oro har, afiliatuak -% 0,6 jaitsi dira hilabete artean. Enplegua galdu da lurralde guztietan: Araban -% 1,0 egin du behera, Bizkaian -% 0,6 eta Gipuzkoan -% 0,5.

Kontratuak

Uztailean 13.198 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 4,0 eta 512 kontratu gehiago. Urtetik urtera behera egin dute gizonei egindako kontratuek (110 gutxiago) eta gora egin dute emakumeei egindakoek (622 gehiago).

Kontratuek % 3,3 egin dute gora gazteenen artean, hots, 127 gehiago, eta 25 eta 44 urtekoen taldean % 9,1 egin dute gora (496 gehiago). 45 urte eta gehiagokoena -% 3,3 jaitsi da (111 gutxiago).

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko Δ

| | |
|----------------|-------------------------|
| Uztaila | 195.408 pertsona |
| | % 1,0 ▼ |
| Zerbitzuak | % 1,0 ▼ |
| Eraikuntza | % 1,0 ▼ |
| Industria | % 1,0 ▼ |
| Lehen sektorea | % 3,3 ▲ |

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

| | |
|--------------|----------------|
| Bilbo | % 1,0 ▼ |
| G-5 | % 0,8 ▼ |
| G-3 | % 0,1 ▼ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

| | |
|--------------------------|------------------------|
| Uztaila | 13.198 pertsona |
| | % 4,0 ▲ |
| Emakumeak | % 9,4 ▲ |
| Gizonak | % 1,8 ▼ |
| Lehen sektorea | % 30,0 ▼ |
| Industria | % 21,6 ▼ |
| Eraikuntza | % 13,4 ▲ |
| Zerbitzuak | % 5,1 ▲ |
| Kontratututako pertsonak | % 6,0 ▲ |

Erregistratutako kontratuen % 45,2 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.966 kontratu), % 29,8, berriz, gazteenei (3.930) eta gainerako % 25a, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (3.302).

Sektoreka, kontratuak gora egin dute Zerbitzuetan (% 5,1 eta 598 kontratu gehiago) eta Eraikuntzan (% 13,4 eta 51 gehiago); behera egin dute Industrian (-% 21,6 eta 134 gutxiago) eta Lehen Sektorean (-% 30 eta 3 gutxiago)

Zerbitzuetan, gorakada absolutuenak Etxeko langileak enplegatzen dituzten etxebizitzak (718 gehiago), Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak (338 gehiago), Merkataritza (145 gehiago) eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (130 gehiago). Informazioa eta komunikazioak eta ostalaritza dira urte arteko galera handienak izan dituzten adarrak (-550, eta -348, hurrenez hurren).

Uztaileko aldi baterako kontratuak kontratu guztien % 73,5 izan dira.

Kontratatuak 10.248 izan dira. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,29 kontratu.

MERKATARITZA

Txikizkako merkataritza

Bizkaiko Txikizkako merkataritzaren sektoreak urte arteko % 3,5eko hazkundera izan du salmentetan laugarren hiru hilekoan. Erregai-zerbitzuzuneetan automobilgintzarako egindako erregaiaren salmenta kontuan izan gabe, salmentek % 3,2 egin dute gora.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, -% 1,3 areagotu dira salmentak.

Kontuan hartu diren sektore guztietan salmentek urtetik urtera gora egin dute: automobilgintzarako erregaiari lotutakoak dira iguera handiena jasan dutenak % 11,6 eta elikadurari eta gainerako produktuei lotutako salmentek ere gora egin dute, % 2,0 eta % 4,6 hurrenez hurren.

Bizkaiko txikizkako merkataritzako sektoreko landunak % 1,9 areagotu dira aurreko urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

EAEEn salmentek % 3,5 egin dute gora. Lurraldeetan ere gora egin dute, % 5,5 Araban eta % 2,6 Gipuzkoan.

Txikizkako merkataritza Bizkaia

Urte artekoa Δ

| II. hiruhilekoa | 113,1 adierazle orokorra |
|-------------------------------|--------------------------|
| | % 3,5 ▲ |
| - Elikadura | % 2,0 ▲ |
| - Gainerako produktuak | % 4,6 ▲ |
| - Ibilgailuetarako erregaia | % 11,6 ▲ |
| Gasolina-zerbitzuzunerik gabe | % 3,2 ▲ |
| Landunak | % 1,9 ▲ |

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduetan 242.100 ostatu-gau erregistratu dira uztailean, hau da, % 5,5ko hazkundea egon da urtetik urtera (12.659 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak % 7,7 handitu dira. Estatuko bidaiarien presentziak urtetik urtera gora egin du, % 4,7 igo da eta uztailean hiriko bisitarien % 37,4 izan dira. Atzerriko bidaiariak % 62,6 dira, joan den urtean, hilabete berean ostatu hartutakoekin alderatuta % 9,7 gehiago.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako estatuko bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugarienak (% 28,3), gero Kataluniakoak (% 13,8), EAekoak (% 12,6) eta Andaluziakoak (% 8,5). Atzerriko bidaiaririk ugarienak Frantziakoak izan dira (% 10,3), gero AEBetakoak (% 10,1), Erresuma Batukoak (% 9,0), Alemaniakoak (% 8,7) eta Herbehereetakoak (% 8,3).

Batez besteko egonaldia 1,97 egunekoa izan da, duela urtebete izandakoa baino zertxobait baxuagoa (2,0).

Hotel-establezimenduek argitaratutako errentagarritasun-datuen arabera, gela eskuragarrien tarifa eta batez besteko diru-sarrerak zertxobait murriztu dira eta 127,9 eta 105,8 eurotan geratu dira, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoak 20.735 sarrera erregistratu dituzte guztira urrian, hau da, % 72,4 gehiago eta 39.492 gaualdi gehiago, eta 2024ko uztailean baino % 43,4 gehiago.

Oro har, enpresa-establezimenduetan, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta, uztailean 143.722 sarrera eta 281.592 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera % 13,9 eta % 9,6 kasu bakoitzean).

Benchmarkina. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera negatiboa izan da, -% 1,4 jaitsi da urte batetik bestera. Gasteizen -% 3,7 egin du behera eta Iruñean -% 3,9. Donostian soilik igo da zertxobait hilabete honetan: % 0,1.

Urtetik urtera hobera egin du EAEn (% 2,3), Bizkaian (% 3,2) eta Gipuzkoan (% 2,8). Soilik Araban galdu egin dira gaualdiak (-% 2,1)

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu gauek -% 0,5eko beherakada izan dute. Ostatu-gauek behera egin dute taldeko hiriburu guztietan, Sevillan (+% 0,6) eta Madrilan (+% 0,5) izan ezik.

Hotel-gauak

Urte artekoa Δ

| | | |
|---------------------------------|--------------------|------------------------|
| Uztaila | 242.100 ostatu-gau | |
| | | % 5,5 \blacktriangle |
| Hiru izar eta gehiagoko hotelak | | % 5,3 \blacktriangle |
| Gainerako hotelak eta ostatuak | | % 6,3 \blacktriangle |

Bidaiarien sarrerak hoteletan

Urte artekoa Δ

| | | |
|----------------|-----------------|------------------------|
| Uztaila | 122.987 sarrera | |
| | | % 7,7 \blacktriangle |
| Nazionalak | | % 4,7 \blacktriangle |
| Atzeritarrak | | % 9,7 \blacktriangle |

Batez besteko egonaldia hoteletan

Urte artekoa Δ

| | | |
|----------------|--------------------------|-----------------------------|
| Uztaila | 1,97 ostatu-gau/bidaiari | |
| | | % 1,99 \blacktriangledown |

Indicadores rentabilidad de los hoteles

Urte artekoa Δ

| | |
|--|----------------------------|
| Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€) | % 0,5 \blacktriangledown |
| Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€) | % 0,1 \blacktriangledown |

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

| | |
|----------------------------|-------------------------|
| Uztaila | |
| Ostatu-gauak | 39.492 ostatu-gau |
| | % 43,4 \blacktriangle |
| Bidaiarien sarrerak | 20.735 sarrera |
| | % 72,4 \blacktriangle |

Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatu ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena.

(Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

| | |
|--------------|----------------------------|
| Bilbo | % 5,5 \blacktriangle |
| G-5 | % 0,5 \blacktriangledown |
| G-3 | % 1,4 \blacktriangledown |

G-5: Madril,artzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 690.201 bidaiari izan ditu uztailean (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 0,6 eta 4.341 bidaiari gehiago. Emaizta horiei esker, aireportuak hilabeteko daturik onena lortu du martxan jarri zenetik.

Merkataritza-eragiketei dagokionez, murriztu egin da bidaiarien kopurua estatuko hegaldietan, eta urtetik urtera 22.312 gutxiago izan dira, -%5,9a. Nazioartekoek ordea % 8,6 egin dute gora eta 26.541 bidaiari gehiago pilatu dituzte.

-% 3,2 egin dute behera hilabetean egindako hegaldiek eta 4.993 izan dira guztira, sarrerak eta irteerako kontuan izanik. Aitzitik, nabarmen hasi dira hegaldi horietan garraiatutako merkantziak (% 47,1).

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik uztaileira, 3.986.189 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 3,6 gehiago, hau da, 140.035 bidaiari gehiago.

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 1,8ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokionez. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Zaragozan izan da hazkunderik nabarmenena (% 6,9) eta Sevillan baxuena (% 0,1).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, -% 2,9 gutxitu da. Iruñean soilik egin du gora, % 0,1. Murriztu egin da Donostian (-% 5,4) eta baita Gasteizen ere (-% 0,6).

Itsas-garraioa

Bilboko Portuak 2,9 milioi tonako trafikoa izan zuen uztailean, hau da, -% 0,4 gutxiago aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan uztailean kudeatutako salgaien % 63,2 izan da, eta urte artean % 3,4ko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa -% 8,6 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrena -% 3,3 jaitsi da.

Uztailean 13 itsas bidaia erregistratu dira.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik uztaileira 18,3 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean -% 12,7 gutxiago.

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

| | |
|----------------------|---|
| Uztaila | 690.201 bidaiari |
| | % 0,6 ▲ |
| Nazionalak | -% 5,9 ▼ |
| Nazioartekoak | % 8,6 ▲ |
| Salgaiak (kg) | % 47,1 ▲ |
| Hegaldiak | % 3,2 ▼ |

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

| | |
|--------------|--|
| Bilbo | % 0,6 ▲ |
| G-5 | % 1,8 ▲ |
| G-3 | % 2,9 ▼ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruña

Itsas garraioa Uztaila

Urte artekoa Δ

| | |
|--------------------------------|---|
| Portuko trafikoa | 2,9 milioi tona |
| | % 0,4 ▼ |
| Bidaiariak garraiatzea | 58.154 bidaiari |
| | % 47,9 ▲ |
| Itsas bidaiariak (kop.) | 33.185 itsas bidaiari |
| | % 85,8 ▲ |

ADIERAZLEEN TAULA


| | Azken datua | Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia | Azken datuaren data |
|---|-------------|---|---------------------|
| Lan-merkatua | | | |
| Erregistratutako langabeak (kop.) | 20.755 | 1,5* | Uztaila 2025 |
| Afiliatutako biztanleak (kop.)** | 195.408 | -1,0* | Uztaila 2025 |
| Erregistratutako kontratuak (kop.)** | 13.198 | 4,0 | Uztaila 2025 |
| Biztanleria aktiboa (milakotan) | 190,8 | 0,3* | 2025eko II. HH |
| Biztanleria landuna (milakotan)** | 177,9 | 5,9* | 2025eko II. HH |
| Langabeak (milakotan) | 12,9 | -42,2* | 2025eko II. HH |
| BAlko langabezia-tasa (%) | 6,75 | -4,97 p.p.* | 2025eko II. HH |
| Merkataritza | | | |
| Kontsumoko prezioen indizea (KPI)*** | 119,6 | -0,2* | 2025eko uzt. |
| Afiliatutako pertsonak** | 20.345 | -0,2* | 2025eko uzt. |
| Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)*** | 113,1 | 3,5 | 2025eko II. HH |
| Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak | 101,7 | 3,2 | 2025eko eka. |
| Turismoa | | | |
| Bidaerien sarrerak hoteletan | 122.987 | 7,7 | 2025eko uzt. |
| Hoteletako ostatu gauak | 242.100 | 5,5 | 2025eko uzt. |
| Batezbesteko egonaldia (ostatu gauak/bidaia-ria) | 1,97 | -1,99 | 2025eko uzt. |
| Hoteletako okupazio-maila (%) | % 73,2 | 0,2 p.p. | 2025eko uzt. |
| Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€) | 105,8 | -0,1 | 2025eko uzt. |
| Bidaerien sarrerak hoteletan | 20.735 | 72,4 | 2025eko uzt. |
| Pernoctaciones en Apartamentos | 39.492 | 43,4 | 2025eko uzt. |
| Batezbesteko egonaldia (ostatu gauak/bidaia-ria) | 1,90 | -17,03 | 2025eko uzt. |
| Ekonomia eta enpresa | | | |
| Bizkaiko BPGd | 106,2 | 2,1 | 2025eko I. HH |
| Industria-produkzioa (indizea)*** | 114,1 | -% 1,3 | 2025eko eka. |
| Merkataritza-sozietate berriak | 491 | 8,6 | 2025eko urt.-eka. |
| Zerbitzuetako salmentak (indizea)*** | 120,5 | 3,4 | 2025eko I. HH |
| Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²) | 4.135,0 | 10,8* | 2025eko I. HH |
| Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²) | 3.136,8 | -0,2* | 2025eko I. HH |
| Garraioa | | | |
| Bidaerien aireko garraioa | 690.201 | 0,6 | 2025eko uzt. |
| Hegaldiak | 4.993 | -3,2 | 2025eko uzt. |
| Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan) tona | 2,9 | -0,4 | 2025eko uzt. |

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaiari dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, Elnren, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia-tasa



Afiliatuak




Aireportuko bidaiariak



Txikizkako merkataritza



Hoteletako ostatu-gauak



Portuko trafikoa

